

ANTZERKIA

**ESTREINALDIA EUSKADIN**

# HISTRIÓN TEATRO

*DYSPHORIA*

ESZENAZ 25/26

ESKUORRIA

# HISTRIÓN TEATRO

*DYSPHORIA*

## Fitxa artistikoa

**Dramaturgia eta zuzendaritza:** María Goiricelaya

**Antzezlea:** Gema Matarranz

**Eszenografiaren diseinua eta eraikuntza:** Álvaro Gómez Candela, Giacomo Giucci

**Argien diseinua:** Juan Felipe Augustín (Tomatierra)

**Soinu-espazioa:** Ibon Aguirre

**Jatorrizko musika:** Ibon Belandia

**Produkzioaren zuzendaritza:** Histrión Teatro

**Produkzio exekutiboa:** Nines Carrascal eta Sonia Espinosa

**Banaketa:** Nines Carrascal eta Rocío Pindado (Portal71)

**Komunikazioa eta diseinu grafikoa:** Divina Palabra

**Prentsa:** María Díaz

**Kartelaren irudia:** Palen

**Lankidetzak:** Portal 71, Andaluziako Juntako Kultura eta Kirol Saila –Andaluziako Kultura Erakundeen Agentzia eta INAEM – Kultura Ministerioa.

**Esker onak:** Fernando Pérez Serrabona, “La Librería” de Cabañas de Polendos eta Centro Cultural Pinillos de Polendos.

**Egonaldian egindako ikuskizuna:** Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Granadako Fernando de los Ríos de Albolote Kultura Etxea, Granadako Medina Elvira Kultura Etxea-Atarfeko Udala, Granada, Guadixeko Amescuaren Mira antzerkia.

**Honekin itundutako konpainia:** INAEM

Granadako Fernández de los Ríos de Albolote Kultura Etxeko konpainia egoiliarra

## Antzerkia

2025eko urriak 9, osteguna

Histrión Teatrok 30. urteurrena ospatuko du antzerki profesionaleko konpainia gisa, eta, horretarako, antzezlan dokumental baten estreinaldia egingo du, ikusleei desafio eginez beren paradigmak eta aurreiritziak zalantzan jartzera, dibertsitatea errespetatuz.

### _ Sinopsia

*DYSPHORIA* bakarrizketa arriskutsu eta teatraltasunez bete bat da, eta Trans Lege berrian jartzen du arreta, genero-arloko iruzurrean eta gizarteak arau hori etikoki ez urratzeko egiten duen borrokan.

Lan honek erronka egiten digu gure paradigmak zalantzan jartzera; detonagailu bat da, justiziak nola funtzionatzen duen pentsatzera behartzen baikaitu, eskubideak eta askatasunak denontzat berdinak izan ez daitezen eraikita dagoen munduan.

Bera shock egoeran dago. Hamasei urteko alabak aitortu berri dio ez dela neska, mutila baizik. Ez da gehiago izango Alejandra; benetan dena izango da: Alex. Terapia, sentsibilizazio-taldeak, ezer ez da aski onartzeko bere alaba ez dela gehiago bere alaba izango; eta ukazioak, erresistentziak eta frustrazioak aurrera egingo dute, aldaketak eragiten duen minetik. Hala ere, dena aldatuko da polizia etxera iritsi, eta Alexi sexu-abusua egitea leporatzen dionean. Ustekabeko gertaera horrek gure protagonista bultzatuko du eromenezko lasterketa bati ekitera, semea ulertzen saiatzeko eta babesteko, zokoratu, suntsitu eta identitatea eta gizaki gisa dituen eskubideak lapurtu nahi dizkion guztiaren aurrean.

### _ Egilearen oharra

Espainiarrak, sexua hil da.

2023ko martxoaren 1ean, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Legea onartu zen Espainian. Ordutik hona, legeari esker, 5.139 lagunek sexua aldatu dute, indarrean egon den lehen urtean. Alabaina, era berean, ugaritu egin dira genero-iruzurrak, batzuek legearen arrakalak aprobetxatu baitituzte onura ilun bat bilatuz. Hori, gainera, arma politiko gisa balio izan zaie alderdi batzuei.

*DYSPHORIA* (euforiaren kontrako aldartea) fikzio dokumentaleko bakarrizketa bat da. Erresuma Batuan gertatu berri diren genero-iruzurrak hartzen ditu abiaburutzat, gaur egun egoera horietaz dugun ezagutza eta haiei eman ahal diegun erantzun soziala berrikusteko. Testuak arretaz aztertzen ditu kasu horiek, hutsune legala, kezka soziala eta haien berezitasunek protagonistei sortzen dieten sufrimendua. Oihu bat da, tour de forcé ezinbesteko bat gizartean, Trans Lege berriaren hutsune legalek premiazko irtenbide berriak eskatzen baitituzte.

### _ Histrión Teatro

1994an Granadan sortu zenetik, konpainiak 23 ikuskizun ekoitzi ditu. Gaur egun, Histriónek bere bideari jarraitu nahi dio, eta bertan funtsezko bi elementu daude: testua egiturazko elementu gisa eta emozioei eusten dien interpretazio-lana, publikoarekiko lotura.

## Glosarioa

**BINDERRA**
Bularrak zanpatzeko erabiltzen den paxa.

**DILDOA**
Sexu-osagarria, normalean falikoa, masturbazioan eta sexu-harremanetan erabilia.

**DISFORIA**
Tristura, antsietate edo suminkortasuneko aldartea.

**DM**
Mezu pribatua.

**FALOPLASTIA**
Prozedura kirurgiko honetan, zakila sortzen edo berreraikitzen da gorputzeko ehunak erabiliz.

**GENERO-DISFORIA**
Pertsona batek larritasun edo ondoez iraunkorra sentitzea, bere sexu biologikoa ez datorrelako bat bere genero-identitatearekin.

**HISTEREKTOMIA**
Emakume baten umetokia erauzteko operazioa.

**MASTEKTOMIA**
Bular baten zati bat edo bular osoa erauzteko kirurgia.

**PACKERRA**
Silikonazko protesia, edo barruko arropetan bestelako betegarriak jarriz egindakoa, zakil baten itxura emateko.

**TRANSDR**
Transgeneroentzako hitzorduen aplikazioa.

**TRANSFOBIA**
Trans pertsonekiko beldurra, ezinikusia edo gorroto irrazionala.

**TRANSGENEROA**
Pertsona hauen genero-identitatea ez dator bat jaiotzean esleitu zitzaien sexuarekin.

**ZIS**
Pertsona hauei jaiotzean sexu ‘femeninoa’ esleitzen zaie eta neska edo emakume sentitzen dira, edo jaiotzean sexu ‘maskulinoa’ esleitzen zaie eta mutil edo gizon sentitzen dira.

# DENBORALDIAREN AURRERAPENA




**ESTREINALDIA EUSKADIN**

## MARCAT DANCE

*El bosque*

DANTZA

DANTZALDIA

2025eko azaroak 6, osteguna

## HAATIK DANTZA KONPAINIA

*OTS*

DANTZA

2025eko abenduak 4, osteguna






## HABLARENARTE & CHRISTIAN FERNÁNDEZ

*Músicas memorables*

MUSIKA

2025eko abenduak 16, asteartea




## SEÑOR SERRANO

*Historia del amor*

ANTZERKIA

2025eko abenduak 18, osteguna

## DANI HERNÁNDEZ

*Córdoba Drone*

DANTZA

2026ko urtarrilak 15, osteguna







## ROGER BERNAT

*La consagración de la primavera*

ANTZERKIA / DANTZA

2026ko urtarrilak 29, osteguna

## LED SILHOUETTE

*Ultimatum*

DANTZA

2026ko maiatzak 21, osteguna






## SAHATSA JAUREGI & TRIPAK

*Azpitik doaz*

PERFORMANCE

2026ko maiatzak 28, 29 eta 30, osteguna, ostirala eta larunbata



## LAGARTIJAS TIRADAS AL SOL

*Centroamérica*

ANTZERKIA

2026ko maiatzak 28, osteguna




## EL CONDE DE TORREFIEL

*La luz de un lago*

ANTZERKIA

2026ko ekainak 25, osteguna

## EszenAZen jarduerei buruzko informazio eguneratua izan nahi duzu?

Bihurtu zaitez eszenAZeko komunitatearen parte eta jaso Arte Bizien programazioari buruzko informazio espezifikoa

## Kontsultatu programazio osoa

## Sarrerak

### Tarifa murriztuak

Tarifa bereziak profesional, gazte, langabe eta beste kolektibo batzuentzat, dagokion egiaztagiria aurkeztuta:

**% 25eko deskontua***

-Arloko profesionalak

-65 urtetik gorakoak

-30 urtetik beherakoak

-% 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonak

-8 pertsonatik gorako taldeak

**% 50eko deskontua**

-Gurpil-aulkian dauden pertsonak eta laguntzailea.

-Aurrez aurreko erosketa (ikuskizuna baino hilabete lehenago)

**% 30eko deskontua**

-AZ Txartelarekin

**Erosi zure sarrerak hemen:**

**azkunazentroa.eus**

**AZ Info**

* Sarrerak aurrez aurre bakarrik saltzen dira AZ Infon

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO